

ANDOAINGO UDALAK, HERRIKO KLUBEN LAGUNTZAREKIN, MUGITU ANDOAIN ANTOLATZEN DU, ETA KALEAK KIROL EKINTZEZ BETE NAHI DITU.

Andoaingo Udalak jarduera fisikoa eta kirola Andoaingo kaleetara ateratzeko jardunaldia antolatu du datorren larunbaterako, irailaren 24rako.

Petri Romero Jarduera Fisiko eta Kiroletako zinegotziak adierazi duenez, jardunaldi hau urtero bultzatzen da eta ezinbesteko laguntzaile diren tokiko klubak lankidetzari esker egiten da, hala Euskalduna Mendigoizale taldea, S.D.Euskalduna elkarteak, Leizaran EKK, Ganbara S.T, Bidewushu, Kabutoken, Karate Andoain, eta Judo Club Andoain, nola Bertxin eta Sta. Krutzeko erretiratuen klubak eta 65 urtetik gorakoentzako gimnasia taldea. Udal ingurumen sailak ere zenbait jarduera antolatzen lagunduko du.

Bestalde, Romerok esan du Mugitu Andoainen helburua jarduera fisikoa sustatzea dela, kirola ikusaraziz eta Andoaingo kaleak hartuz, jai giroan. Edozein andoaindar, adina gorabehera, fisikoki aktibatzea eta eguneroko ohitura osasungarriak hartzea dira erronkak. Horregatik, jardunaldi honetan, familientzako eta 65 urtetik gorako pertsonentzako jarduerak aurreikusten dira.

Jardunaldia goizeko 10etan hasiko da eta eguerdiko 13: 00etan amaituko da Zumea plazan otamen txiki batekin eta kirolari ezberdinei esker ona adieraziko zaie.

Egun horretan, parte hartu nahi duten pertsona, familia, lagunarte edo koadrilek bizikletaz gozatu ahal izango dute, Goikoplazatik irteera batean edo trebetasun zirkuitu batean eta Larramendi kaleko uztai jolasetan. Goikoplazan egingo den Nordic Walking-go lantegi batean edo arte martzialetako lantegietan ere (karatea, judoa, Kenpo-kai edo Wushu) parte hartu ahal izango da, azken hauek Etxeberrietako plazan.

65 urtetik gorakoentzat bi jarduera berezi egitarautu dira: batetik, Ibili Andoain jarduera Goikoplazatik, gure adinekoek ezagutzen dutena eta, bestetik, ilarako dantza, Zumea plazan egingo dena.

Halaber, 6 urtetik aurrera, hainbat futbol, saskibaloia eta eskubaloia jokotan parte hartu ahal izango da Kale Berrian eta, azkenik, 8 urtetik aurrera skate boilding eta surfskate lantegi batean parte hartu ahal izango da.

Amaitzeko, Maider Lainez alkateak nabarmendu duenez "frogatuta dago pertsona aktiboek bizi-kalitate hobea dutela, gaixotasunekiko erresistentzia handiagoa, beren buruarengan konfiantza handiagoa eta depresioetarako joera txikiagoa, baita adin aurreratuetan ere. Udalak beti egin du jarduera fisikoaren eta kirolaren aldeko apustua eta, horregatik, herritar guztiei dei egiten diegu hilaren 24an mugitu dadin eta kalera jo dezan "MUGITU" izeneko egitarauan ekintzez parte hartzera".

EL AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN, CON LA COLABORACIÓN DE CLUBES LOCALES, ORGANIZA MUGITU ANDOAIN, Y QUIERE LLENAR LAS CALLES DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS.

El ayuntamiento de Andoain ha organizado un año más, para el próximo, sábado 24 de septiembre, la jornada "MUGITU ANDOAIN", jornada para sacar la actividad física y el deporte a las calles de Andoain.

La concejal de Actividad Física y Deportes, Petri Romero ha señalado que "esta jornada se impulsa anualmente y se realiza gracias a la colaboración de los clubes locales, aliados imprescindibles, como Euskalduna Mendigoizale taldea, S.D.Euskalduna elkarte, Leizaran EKK, Ganbara S.T, Bidewushu, Kabutoken, Karate Andoain, Judo Club Andoain, Clubes de jubilados Bertxin y Sta.Cruz y un grupo de gimnasia para mayores de 65 años. También colaborará con la organización de algunas actividades el departamento municipal de medio ambiente.

Por otra parte Romero, ha dicho que "el objetivo de Mugitu Andoain es, promocionar la actividad física, visibilizando el deporte y ocupando las calles de Andoain, en un ambiente festivo. El reto es, que cualquier andoaindarra, no importa la edad, se active físicamente y adquiera rutinas diarias saludables. Por eso, en esta jornada, hay actividades para las familias y también para las personas de más de 65 años".

La jornada dará inicio a las 10:00 de la mañana y finalizará a las 13:00 del mediodía en la Plaza Zumea con un lunch y el reconocimiento a distintos deportistas.

Este día, aquellas personas, familias, amigos o cuadrillas que quieran participar podrán disfrutar de la bicicleta, en una salida desde Goiko Plaza o en un circuito de habilidad y juegos de aros en Calle Larramendi. También se podrá tomar parte en un taller de Nordic Walking, desde Goiko Plaza o en los talleres de artes marciales (karate, judo, Kenpo-kai o Wushu), estos últimos en Plaza Etxeberrieta.

Para los mayores de 65 años habrá programadas dos actividades específicas, por un lado la actividad "Ibili Andoain" desde Goiko Plaza, actividad ya conocida por nuestros mayores y el baile en línea, que se realizará en la Plaza Zumea.

Así mismo, y a partir de los 6 años se podrá participar en distintos juegos de fútbol, baloncesto y balonmano, en Kale Berria y por último a partir de los 8 años se podrá tomar parte en un taller de Skate Boalding y surfskate en el skatepark.

Para finalizar la alcaldesa Mainer Lainez, ha querido resaltar que, "está demostrado que las personas activas gozan de una mejor calidad de vida, más resistencia a las enfermedades, tienen más confianza en sí mismas, e inclusive, menor tendencia a las depresiones. Desde el Ayuntamiento siempre hemos apostado por el impulso de la actividad física y el deporte y, por ello, animamos a toda la ciudadanía a que el día 24 se mueva y salga a la calle a participar activamente en el "MUGITU" ".